

ERITXI BATZUK BIZKAIERAREN ALDE

"Ama, zenbatek saldu zaitue...
Zenbat eta almentsuago
zure semetarik asko
zuretzat etsaiago ".—PA ULIN'ek

"Erriko euskerea galtzen ba'da, geure arimea, geure sena, geure biotza galtzen da... Bizkaitarrak azpi-
ratuta gagoz, Bizkai'ko euskerea zapaldu egin dabe.
Alako euskera guztiz ederra".

GALLASTEGI'TAR KAULDI'K

* * *

"Nik bizkaiera muiñetaraiño sartuta daukat, eta nire bizitza aiña maite dot. Ezin dagiket jasan, azke-
nengo urteotan sorturiko erri euskalkiak txokoratzen (bartzartzen) dauzan joera barri ori. Asmakeria eta ku-
tsu errikoia ez dauanaren alde ekin bear ori..."

ZUBIRI'TAR IÑAKI'K

* * *

"Nik, bizkaitar lez, lenengo erakutsi eusten izkuntza lez, bizkaiera erabiltera beartuta nagoan lez, nire
buruari itanduten dautsak: Ze pekatu egin dogu bizkaitarrok gure jaiotzatik artu eta erabilli dogun bizkaiera
erabilteagaz? Zeiñen aurka egin dogu pekatu ori? Gure izkuntza au emon euskun Jainkoaren aurka? Sorle-
kua emon euskun Bizkai erriaren aurka? Edo ta ez ete dogu guk bizkaitarrok gure nortasunez euskaldun iza-
teko eskubiderik?"

Augustin ZUBIKARAI'K

* *

"Nire ardura edo kezkarik andiena da Bizkaiko euskerea bartzartuta ta zapalduta ikustea. Eta
Bizkaian ez dagola beste euskera bizirik BIZKAIERIA baiño. Eta euskerearen izenean euskera bizi ori ito-
tzen ba'dabe... agur emengo eta ango euskerea".

J. A. RETOLAZA'K

* * *

"Bizkaiko gaztetxuak ikastolatik etortean, sarritan gurasoei edo etxeke edozeiñeri *erderaz esate-
ko esaten dautsee*, ikastolan ikasten dagozan euskerea desbardiña dalako.

Aurreko menperatzaillea, Franco, il zan ezkerro, noren euskuetan gagoz orain?

Aizu bizkaitarrok! geureari da bartzartze andiena egin dautsoena, ez itzi borroka!, BIZKAIERIA ilten
ba'da, Bizkaia be ilko da eta Bizkaia barik ez dago Euskalerririk!

PALMI MERINO'K

* * *

"Gaur ain zapaldua ikusten dodan Bizkai'ko euskera ederra eta gure elertian guztiz aberatsa da-
naren alde zerbait egin bearrean nago. Zapaltze guztien aurka jokatzeta, zuzentasunak berak eskatzen dau-
ta".

OLAZAR'TAR MARTIN'EK

BILBAO'TAR JON E'K

Aukeratuak